

MODA IBILTOKIA BIZIKLETAZ ERAKUSTALDIRAKO OINARRIAK

HELBURUA

Donostiako Udalaren Mugikortasun Atalak *Herritarrak eta Bizikleta* izeneko moda erakustaldia antolatu du. Helburu du bizikletei lotutako estetika desberdinak ezagutaraztea.



EPEAK

Moda erakustaldia irailaren 20an izango da, 19:00etan, Donostia 2016ren instalazioetan (Easo kalea, 43). Jarduerak hainbat fase izango ditu, eta hauek dira datak:

- **Izena emateko epea:** abuztuaren 21etik irailaren 14ra
- **Aukeratutako modeloei jakinaraztea:** irailaren 16a
- **Moda erakustaldia:** irailaren 20a
- **Epaimahaiaren ebaluazioa:** irailaren 20a
- **Irabazleei jakinaraztea:** irailaren 20a
- **Sari ematea:** irailaren 20a

PARTE HARTZEA

Adinez nagusia den edonork parte hartu ahal izango du. Izen ematea Mugikortasun Atalaren web orrian egingo da: www.donostiamovilidad.com. Bertan, aditzera emango dira bai datu pertsonalak bai erakutsi nahi den bizikletaren modeloa. Antolatzaileek parte-hartzaile batzuk aukeratuko dituzte eta irailaren 16an jarriko dira haiekin harremanetan. Irailaren 20an, aukeratutako herritarrek beren bizikletekin desfilatuko dute, antolatzaileek oniritzia eman eta gero. Aukeratutakoek hitz emango dute desfilean kasu egingo dietela antolatzaileen jarraibideei.

Adingabeak, erakustaldiaren antolaketari lotutako pertsonak eta enpresa babesleak ezin izango dira aurkeztu. Antolatzaileen iritziz, izangairen batek lehiaketa irabazteko guztiz bidezkoa ez den zerbait egiten badu, kanporatu ahal izango dute, noiznahi eta aurrez ohartarazi gabe.

EPAIMAHAIA

Lau lagunek osatuko dute epaimahaia, lauak Mugikortasun Atalak izendatuak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Jantziak eta aurkeztutako bizikleta modeloa bat etortzea da ebaluatzeko aintzat hartuko den irizpidea.

SARIAK

Desfilea egin eta gero, epaimahaiak irabazlea aukeratuko du. Sariak irailaren 20an bertan emango dira, Donostia 2016ren egoitzan. **Hona hemen banatuko diren sariak:**

1. bi sarrera La Perlako “Sasoian Jartzeko” igerileku zirkuiturako, bina ordukoak.
2. bi sarrera La Perlako “Sasoian Jartzeko” igerileku zirkuiturako, bina ordukoak.

PRIBATUTASUN POLITIKA

Izena ematen dutenek, baldin eta libreki eta beren borondatez datu pertsonalak ematen badituzte lehiaketan ezarritako prozeduren bitartez, berariazko baimena ematen diote elkarte antolatzaileari datuok tratatzeko, beti ere Pribatutasun Politikari buruzko atalean jasotakoaren arabera eta datu pertsonalen eta informazio gizartearen zerbitzuen alorrean indarrean dauden legeak betez.

Edozein erabiltzailek noiznahi baliatu ahal izango ditu sarbide, zuzenketa eta deuseztatze eskubideak bere datuei dagokienez, bere asmoa antolatzaileei jakinarazita, horretarako jarritako bitartekoak erabiliz.

Antolatzaileek eskubidea izango dute lehiaketa aldatzeko, bertan behera uzteko nahiz eteteko, beti ere justifikatutako arrazoiak izanda edo sarien espiritua urratzen bada. Horrek ez dio inolako erantzukizunik ekarriko enpresari.

Lehiaketaren gaineko eskubide guztiak antolatzaileenak dira.

Erakustaldi honetan parte hartzeak esan nahi du lehiaketaren oinarri eta jarraibideak onartzen direla. Sariak direla-eta antolatzaileek erabakirik hartu behar izanez gero, haien irizpidea ere ontzat eman beharko dute parte-hartzaileek.

Antolatzaileek eskubidea dute lehiaketan parte hartzeko oinarri hauetan ezarritako baldintza nahiz zehaztapenen bat betetzen ez dutenei nahiz lehiaketaren espiritua urratzen dutenei parte-hartzea ukatzeko.

Antolatzaileek erreserbatuak dituzte jarduera hau ustiatzeko eskubide guztiak. Ohartarazten dugu saioen testigantza grafikoa hartuko dela (argazkiak eta/edo bideoak). Beraz, ekitaldietan daudenak argazki nahiz bideo horietan agertuko dira, eta helburua da hori jendartera ateratzea.

Adingabeak ere joan daitezke saio horietara, baldin eta ama edo aitaren baimena ekartzen badute. Baimen hori emanda, aitak edo amak onartzen du adingabea testigantza grafikoetan agertzea.